

BIHOTZEKOAK JOTA HIL ZEN ATZO ERROMAN, 77 URTE ZITUELA, ITALIAKO AKTORE EMANKORRENETAKOA IZAN DENA

Vittorio Gassman hil da

■ Italiak izan duen zinema aktore eta antzerkigile garrantzitsuenetakoa izan da, eta ehundik gora lan utzi ditu

■ Marcello Mastroianni, Alberto Sordi eta Hugo Tognazzirekin batera nazioartean Italiako aktorerik ezagunena zen

■ 1988an Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak Donostia saria eman zion, ibilbide luzean egindako lana ezagutu asmoz

Amagoia Mujika / Donostia

ATZO hil zen Vittorio Gassman Italiako zinemagile eta antzerkigile ezagunenetakoa. Hil eta berehala nazioarteko komunikabide guztietara heldu zen berria. 1922an sortu zen Genevan, eta oso gaztetatik, agertokietan eta platoe-tan egin zituen bizitzako ordu gehienak. Hori dela eta, atzo argi gorria piztu zuen haren heriotzak, eta samin erreakzioak eragin zituen ezagunen artean. Bat batean hil zen, Erroman, bihotzekoak emanda, 77 urte zituela.

Umetan Genevatik Erromara joan zen amarekin, aita zendu zenean. Gaztetan, unibertsitatean Zuzenbidea ikasteko izena eman zuen, baina amak, —Luis Ambron aktoreak— aholkatu zion Silvio D'Amico Arte Dramatikoko akademiara joateko. Bertako ikasketak amaitu aurretik ekin zion etenik izango ez zuen aktore ibilbideari.


Lehen filma *Preludio d'amore* 1946an interpretatu zuen, eta 50 film baino gehiago egin zituen harrezkero. Antzerkian ere beste horrenbeste. Idazle gisara ere lan batzuk egin da, batzuk antzerkirako, eta autobiografia bat ere badu, sari asko jasotakoa.

Ibilbide emankorra

Film ugarien artean hauek dira oihartzun handiena izan dutenetako batzuk: *War and peace*, (1956), *Soliti Ignoti* (1958) *Riso amaro*, *Il Sorpasso* (1962), *La armata Brancaleone* (1966), *Profumo di donna* (1974), *La Vie Est Un Roman* (1983) eta *La Famiglia* (1987).

Zuzendari handi askoren ondoan egin zuen lan Gassmanek. Besteak beste, Italiako Dino Risi, Mario Monicelli eta Ettore Scolaekin, eta atzerrian Robert Altman, King Vidor eta Alain Resnaisekin.

Italiako aktoreen artean, Marcello Mastroianni, eta Alberto Sordirekin batera zeresan handiena eman du Gassmanek.



BERTRAND GUAY / EPA

Vittorio Gassman Italiako antzerki eta zinema munduko pertsonaiarik ezagunenetakoa.

L'addio di Vittorio

Iñaki Lazkano

MASTROIANNIREN itzalak bere distira ilundu zuen arren, hura bezain aktore ona izan zen Vittorio Gassman. Amak antzerkiaren xarma kutsatu zion haur bat baino ez zela. Hala, hazi zenean, zuzenbide ikasketak uztea erabaki zuen antzezle bihurtzeko. Zelu-loidearen munduan ezagun egin aurretik, ordea, Viscontirekin egin zuen lan antzerkian. Shakespeare, Cocteau eta beste hainbat

egile handiren obrak taularatzeaz gain, Teatro Popolare Italianoaren sortzaile ere izan zen.

Giuseppe de Santis zuzendariaren *Riso Amaro* film neorrealistaren arrakastak zinemaren ateak zabaldu zizkion. Bere interpretazio fina, baina, Silvana Manganoren erotismoan urtu zen. Paradoxikoki, edertasunak erabat mugatu zuen Vittorio Gassman. Galai paperak baino ez bai-

tzizkioten eskaini bere has-tapenetan.

Gerra ostean, Gassmanen talentua lehertu zen Monicelli eta Risiren ukitu garrantzeko komedia satirikoetan. *I Soliti Ignoti* eta *Il Sorpasso* dira horren lekuko. Ondoren, Scola, Vidor, Altman eta Resnaisekin aktore aparta zela erakutsi zuen. *L'addio del mattatore* izan zen bere azken antzez-lana. Epitafio ederra irribarre etsiko antzezlearentzat.

50.eko hamarkadan Hollywooden ere hainbat film egindakoa zen. Baina hori ez da bere ibilbide luzean pasadizubat besterik. Donostian ere izan zen Gassman. Hain zuzen, 1988an Nazioarteko Zinemaldian Donostia saria jaso zuen, ordurako egin zuen zinemagintza ibilbide aberatsa ezagutu zezan zale-tuak.

Batez ere zinemagintzan egin zen ezagun, baina jarduerarik gogokoena antzerkia zuen Gassmanek. Shakespeareren *Hamlet* obra zen bere gustukoena, eta oro har dramak erakartzen zuen. Aktore izateaz gainera, obrak idatzi, interpretatu, zuzendu eta produzitu zituen.

Zinemagintzan ere genero guztietan aritu zen. Komedia satirikoak interpretatu zituen gerra osteko garaietan. Baina, ondoren, hamai-ka drama erromantiko ere egin zuen.

Pantailan maiz agertzen bazen ere, izaera lotsatia zuen Gassmanek, eta ondorioz maiz izan zituen krisi sakonak bere bizitzan. Bizitzarekiko kritikozko izateak sortzen zizkion askotan gora-beherarik handienak, haren inguruko lagunek diotenez.

Atzo berria jakin bezain laster ospetsuak diren hainbat lagunek adierazpenak egin zituzten. «Ezin dut sine-tsi, hilezkorra zirudien», esan zuen Claudia Cardinalek, «galera penagarria da oso. Italiako antzerki-gizona galdu dugu, sekulako artista». Gassmanekin egindako lan batean debutatu zuen Cardinalek.

Alberto Sordik «sekulako estimazioa» ziola esan zuen: «Laguna nuen, eta beti esker-tzen zidan niregandik zinemagintzan ikasi zuena. Ni, berriz, antzerki gizon haren ekarri izugarriaz baliatu nintzen. Gure karrerako ezinbesteko hainbat lanetan elkarrekin lan egin dugu».

Il Mattatore ezizena zuen, eta bere azken lana iaz egin zuen, *L'addio del mattatore* (Il mattatoreren agurra), zale-tuak agurtuz heriotza gertu zuela.